

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Laudioko Udalaren lanpostuen zerrenda aldatzea

Udal honek 2020ko otsailaren 24an egindako ohiko bilkuran, Lanpostuen Zerrenda aldatzeko erabaki hau hartu zuen:

Lehenengoa. Laudioko Udaleko lanpostuen zerrendako honako lanpostu hauek amortizatzea:

1002 kodea duen lanpostua, Sare informatikoen administratzailea.

1005 kodea duen lanpostua, Ordenantza telefonista.

1010 kodea duen postua, Atezaina.

5025 kodea duen lanpostua, Hiltegiko peoi espezialista.

6001 kodea duen lanpostua, Kultura eta Kirol koordinatzailea.

Bigarrena. Laudioko Udaleko lanpostuen Zerrendan lanpostu hauek sortzea:

2.1. 1002 kodeko lanpostua, Kontratazio teknikaria, A1 taldea, Administrazio Orokorreko Eskala, Zuzenbideko, Politika eta Administrazio Zientzietako Lizentzia edo Gradu Titulazioa, Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza, Ekonomia, Aktuariatza eta Finantza Zientziak edo baliokidea, lanpostu-mailako osagarria: 24, berariazko osagarria 24.721,51 euro, 3. hizkuntza-eskakizuna, nahitaezkotasun-datarekin, otsailaren 24ko Osoko Bilkuran sortu zena.

Lanpostu horrek eginkizun hauek izango ditu:

– Aholkularitza eta lankidetzaren kontratazio-espeditenteen kudeaketan (obrak, hornidurak, mantentze-lanak, zerbitzuak), dokumentu-ereduak egitea eta mantentzea (pleguak, txostenak, etab.), prozedurari buruzko aholkularitza orokorra, eta zerbitzuekin lankidetzan aritzea baldintza zehatzen agiriak egiteko.

– Kontratazio-espeditenteei buruzko informazioa, organo eskudunak onartu aurretik.

– Lizitazio-prozeduren kudeaketa (lehiaketak, enkanteak). Iragarkiak prestatzea eta berrikus-tea, eskaintzak jasotzea, dokumentazioa aztertzea, ahalordeak askiestea, kontratazio-mahaiak prestatzea, aktak idaztea, kontsulterantzutea, etab.

– Kontratuak idaztea, aldaketak eta luzapenak, hala badagokio. Aholkularitza eta lankidetzaren administrazio-kontratazioarekin lotutako beste espeditente mota batzuen kudeaketan, kontratuak ebazteko zehapen-espeditenteak barne.

– Hornitzaileekin sinatutako hornidura-akordioak betetzen direla ziurtatzea, bermeari dagokion zatia barne.

– Arloetako zuzendaritzari kontratazio-espeditenteak izapidetzearekin lotutako alderdiei buruzko jarraibideak ematea, eta haiei kontratua behar bezala definitzeko beharrezko argibideak eskatzea.

– Zuzentasun juridikoa bermatzea eta, udal kontu-hartzaitzarekin koordinatuta, izapidetzen diren kontratazio-espeditenteen iraunkortasun ekonomikoa bermatzea, arlo finalistek planteatzen dizkioten behar teknikoei erantzuna emanez.

– Kontratazio-espeditenteen epeak eta baldintza juridikoak kontrolatzeko prozedurak eta politikak ezartzea, eta, zerbitzu eskudunekin koordinatuta, kontratatzailearen profila mantentzeko eta kontratazio-prozeduren kudeaketa gardena bermatzeko behar den informazioa zabaltzeko.

– Hirugarren kontratistekin edo kontratista izateko interesa dutenekin elkarriketa tekniko-juridikoa izatea.

– Koordinazio-bileretara joatea udaleko eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste teknikari batzuekin

– Udalarteko eta udalaz kanpoko koordinazioa, beharrezkoa izanez gero, lan-egutegia programatzen diren ekitaldi eta/edo bileretara egokituz.

– Bere nagusi hierarkikoek agintzen dizkioten antzeko zeregin osagarri guztiak egiten ditu, lanpostuaren eginkizunarekin lotuta.

– Zehapen-espeditente administratiboak bideratzea eta izapidetzea, trafikoari, hirigintzako diziplinari eta langileen diziplinari buruzkoak izan ezik, non eta alkateak ez duen hala erabakitzen bateraezintasun-arrazoientatik edo beste arrazoi batzuentatik.

2.2. 6001 kodeko lanpostua, Kultura, Kirol eta Jai Zerbitzuko Arduraduna, A1 taldea, Administrazio Orokorreko Eskala, Zuzenbideko, Politika eta Administrazio Zientzietako lizentziatura edo gradua, Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza, Ekonomia, Aktuariatza eta Finantza Zientziak edo baliokidea, lanpostu-osagarria: 24, berariazko osagarria 24.721,51 euro, 4. hizkuntza-eskakizuna, eta derrigortasun-data osoko bilkurarena.

Lanpostu horrek eginkizun hauek izango ditu:

– Arloko espeditenteak izapidetzea.

– Arloko informazio-batzordeetan eta bestelakoetan idazkari gisa jardutea.

– Arloarekin lotutako proposamenak egitea.

– Udalbatzako kide anitzeko organoen erabakiak eta zinegotzi ordezkariaren ebazpenak gauzatea, arloaren eskumenekin zerikusia duten gaietan.

– Bere ardurapeko langileen lana zuzentzea, gainbegiratzea eta koordinatzea.

– Arloko aurrekontua kudeatzea.

– Udal barruko eta udalaz kanpoko koordinazioa.

– Gaiarekin zerikusia duten txosten teknikoak, hala eskatzeagatik nola norberaren ekimenez.

– Arloko proposamen teknikoak, garapen eta kontrol ekonomikoa eta programa espezifikoaren ebaluazioa egitea, proiektu bakoitzaren indarreko eta/edo berariazko lege-araudia errespetatuz, eta kudeaketa udaleko beste arlo batzuekin edo beste erakunde batzuekin koordinatuz.

– Laguntza eta aholkularitza teknikoa eta orientazioa eskatzaile indibidualei zein elkarte eta kolektiboari, beren eskumenen esparruan.

– Beharrak hautemateko eta esku-hartzeak proposatzeko azterlanak eta txostenak egitea.

– Txosten juridikoak eta baldintza juridiko administratiboen agiriak egitea.

– Txandaka dagozkion abokaturik gabeko arloetako errekurtsioak, erreklamazioak eta zehapen-espeditenteak izapidetzea.

– Udal barruko eta udalaz kanpoko koordinazioa, eta, beharrezkoa bada, lan-egutegia programatzen diren ekitaldi eta/edo bileretara egokitzea.

– Zerbitzuaren urteko memoria egiten du.

– Bere nagusi hierarkikoek agintzen dizkioten antzeko zeregin osagarri guztiak egiten ditu, lanpostuaren eginkizunarekin lotuta.

2.3. 5003 kodeko lanpostua, Arkitekto Teknikoa, 5003 kodea, A2 taldea, Administrazio Bereziko Eskala, Arkitektura Teknikoko Titulazioa, destino-osagarria: 22, berariazko osagarria 23.659,31 euro, 3. hizkuntza-eskakizuna; derrigortasun-data: 2020ko otsailaren 24ko osoko bilkurarena, Zerbitzu eta Auzoen Zerbitzuaren mende, eta gainerako arkitektoek dituzten funtzio berberekin.

Hirugarrena. Lanpostuen zerrendan honako aldaketa hauek onartzea:

3.1. 1011. lanpostua, Udaltzaingoko burua, Udaltzaingoko ofizial bihurtzea, eginkizun, hizkuntza-eskakizun, titulazio, soldata, lanpostu-mailako osagarri eta berariazko osagarri orokor berberekin, izendapen askeko sistemaren bidez Euskal Poliziaren kidegoetako Ikuskapen Eskalako ofizialen artean bete beharrekoa.

Laudioko Udaleko langileen lan-baldintzak arautzen dituen akordioaren 2. eranskinaren 75. artikuluko 1011. kodeko lanposturako (Udaltzaingoko Ofizial burua, Lanaldi Berezia), erabateko prestasunaren modalitatean, artikuluko horretan ezartzen diren jarduera-baldintzak ezartzea.

Prestasun horrengatiko konpentsazioa Udaltzaingoko ofizial buru postuko soldataren, lanpostu-mailako osagarriaren eta berariazko osagarriaren baturaren ehuneko 15 da, hau da, 6.178,21 euro urtean, eta 14 hilabete-saritan banatuta ordainduko da, zerbitzu-egunen, bajen, oporren eta abarren kopurua alde batera utzita, 1. egunetik aurrerako ondorioekin.

3.2. 7005 kodea duen lanpostua, kontsumoko teknikaria: Ekonomiaren Garapen, Merkataritza eta Enplegu Arloa, KIUB zerbitzu-unitatea, lanpostuaren kodea aldatu da, 10004 izango da, eta zeukan ezaugarri, jardun-baldintza, ordainsari eta funtzio berberak izango ditu.

3.3. 6003 Kodeko lanpostuaren izena aldatzea (La Granja kiroldegiko arduradun teknikoa), eta haren ordezkari La Granja kiroldegiko administrari arduraduna jartzea, gainerako ezaugarriak eta funtzioak mantenduz.

3.4. 8006 Kodeko lanpostuaren izena aldatzea (Drogamenpekotasunen Prebentzio Teknikaria), eta haren ordezkari Adikzioen Teknikaria jartzea, gainerako ezaugarriak eta funtzioak mantenduz, salbu eta akordio honen 3.6 puntuan hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-datari buruz xedatutakoa.

3.5. Lanpostu hauetarako, jarduteko betekizun gisa, lehendik ezarrita dituztenez gain, B motako gidabaimena izatea:

5038 – Zerbitzu anitzetako peoi espezialista

5058 – Obretako peoi espezialista,

5065 – Lorezaintzako peoi espezialista

5067 – Peoi espezialista

5029 – Ikastetxe publikoko atezaina

3.6. 2019k urtarrilaren 28ko Osoko Bilkuraren erabakiz onartutako Euskara Planean ezarritakoarekin bat etorriz, derrigortasun-data gisa 2020ko otsailaren 24a esleitzea adierazitako euskara-eskakizunei:

1012 – Udaltzaingoko 1. mailako agentea.

1016 – Udaltzaingoko agentea.

1020 – Administrari Laguntza-agentea.

1023 – Udaltzaingoko agentea.

- 1024 – Udaltzaingoko agentea.
- 1026 – Udaltzaingoko agentea.
- 1027 – Udaltzaingoko agentea.
- 1029 – Udaltzaingoko agentea.
- 1030 – Udaltzaingoko 1. mailako agentea.
- 1038 – Udaltzaingoko 1. mailako agentea.
- 3007 – Errenten eta ordainagirien administraria.
- 3012 – Erosketa-burua.
- 5008 – Administraria.
- 5012 – Langilea eraikina garbitzea.
- 5013 – Langilea eraikina garbitzea.
- 5014 – Langilea eraikina garbitzea.
- 5015 – Langilea eraikina garbitzea.
- 5021 – Langilea eraikina garbitzea.
- 5030 – Langilea eraikina garbitzea.
- 5017 – Ofizial gidaria zerbitzu laguntzaileak.
- 5018 – Zerbitzu laguntzaileetako langilea.
- 5019 – Zerbitzu laguntzaileetako langilea.
- 5023 – Zerbitzu laguntzaileetako langilea.
- 5024 – Igeltsero-ofiziala.
- 5026 – Hilerriko peoi espezialista.
- 5027 – Mantentze-lanetako peoi espezialista.
- 5029 – Ikastetxe publikoko atezaina.
- 5032 – Ofizial gidaria zerbitzu laguntzaileak.
- 5034 – Zerbitzu laguntzaileetako langilea.
- 5036 – Zerbitzu laguntzaileetako langilea.
- 5038 – Zerbitzu askotarako peoi espezialista.
- 5039 – Zerbitzu askotarako peoi espezialista.
- 5042 – Mantentze-lanetako ofiziala.
- 5044 – Mantentze-lanetako ofiziala.
- 5045 – Obretako arduraduna.
- 5047 – Igeltsero-ofiziala.
- 5048 – Obretako peoi espezialista.
- 5049 – Obretako peoi espezialista.
- 5056 – Soldatzaile ofiziala.
- 5058 – Obretako peoi espezialista.

- 5060 – Landa-garapeneko peoi espezialista.
- 5063 – Lorezaintzako peoi espezialista.
- 5065 – Lorezaintzako peoi espezialista.
- 5067 – Lorezaintzako peoi espezialista.
- 6003 – La Granja kiroldegiko administrari arduraduna
- 6017 – Liburutegiko laguntzailea.
- 7001 – Arloko arduraduna.
- 8001 – Arloko arduraduna.
- 8002 – Gizarte-laguntzailea.
- 8006 – Adikzioen teknikaria.
- 10001 – Arloko arduraduna.

3.7. 3003 kodea, Ogasuneko goi-mailako Teknikaria, 4001 kodea, Hirigintza eta Ingurumeneko Burua eta 10001 kodea, Ekonomiaren Garapeneko Arloko Arduraduna lanpostuetarako, honako titulazio hau izatea bete beharreko baldintza: zuzenbideko, Politika eta Administrazio Zientzietako, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako, Ekonomiako, Aktuariotza eta Finantza Zientzietako edo baliokideko lizentziatura edo gradua izatea.

Laudio, 2020ko martxoaren 2a

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE